



## 2017 Fitosanitarioen EPN txostena

**Produktu Fitosanitarioen Erabilera Jasangarrirako Ekintzen Plan Nazionalan sartuta daude 2009/128/EC-aren helburuak. Lehenengo Plana 2013-17 aldirako egin zen, eta 2017ko abenduaren 31n amaitu zen.**

**2017 ekitaldiko EPN-aren** emaitzen txostenean jasotako datuen artean, hauek dira aipagarrienak:

- **Prestakuntza** eman zaie 3.457 aholkulari, 248.059 erabiltzaile profesionali eta 25.229 saltzaileri.
- Hauek dira **ROPO** (defentsa sanitariorako baliabideen ekoizleen eta operadoreen erregistro ofiziala) sortu zenetik egon diren izen-emateak: produktu fitosanitarioen 4.661 hornitzaile, tratamenduen ia 5.751 enpresa, 17.097 aholkulari eta 795.542 erabiltzaile profesional baino gehiago.
- Zazpi **IKI gida** (izurriteen kudeaketa integrala) onartu dira; hauei dagozkie: hostodun barazkiak, hostozabalak, liliazeoak, arroza, kiwia, gartzainondoa eta pistatxoa.
- **115 baimen berri**, 54 erabilera-luzapen, 52 elkarrekiko aitorten eta 63 baimen berezi erregistratu dira.
- **Ikerketari, berrikuntzari eta transferentzia teknologikoari** dagokionez, ez da aurrerapenik erregistratu 2016. urtean.
- **Kontrolak:**
  - Produktu fitosanitarioak banatzen dituzten 1.000 establezimendu baino gehiago kontrolatu ziren, alegia, guztien % 35 (guztira 2.900 ziren). Gabeziak aurkitu ziren 172 banatzailetan, hau da, % 17tan.
  - Kontrolak egin zitzaizkien 4.000 nekazari eta basogin baino gehiagori, eta 37 kasutan detektatu zen produktu fitosanitarioak oker erabiltzen zituztela (% 1).

Emaitza horiek 2017koak dira, **2013-2017 Ekintza Plan Nazionalaren** azken urtekoak.

2017ko EPN-aren emaitzen txostena ([https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/informepan2017\\_tcm30-482063.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/agricultura/temas/sanidad-vegetal/informepan2017_tcm30-482063.pdf))



Fitosanitarioen erabilera jasangarria arautzen duen lege-esparrua 2009/128/EC Zuzentaraua da, zeina honako dekretu hauen bidez lekualdatu baitzen ordenamendu nazionalera: 1702/2011 Errege Dekretua, produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen aldizkako ikuskaritzari buruzkoa; eta 1311/2012 Errege Dekretua (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2012/BOE-A-2012-11605-consolidado.pdf>), produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena. Azken horren arabera, nahitaezkoa da urteko exekuzio-txostenak egitea.